

18/2026 Irizpena, maiatzaren 25koa: Foru-dekretuaren proiektua, zeinaren bidez aldatuko baita 84/1990 Foru Dekretua, apirilaren 5ekoa, Nafarroan industrialdeak eta industria-jarduerak ezartzeko arauak onesten dituen.

Eskatzailea: Lurralde Kohesiorako Departamentua

Txostengilea: Ana Clara Villanueva Latorre

Interesa: Prozeduran zehar egindako aldaketen trazabilitatea. Elkarteei eta erakundeei entzunaldia emateko epea: ez betetzea. Lurzoru urbanizaezineko jarduera baimengarriak: malgutzea, arauaren helburuak justifikaziotzat hartuta. Hirigintza-legeria betetzea, ingurumen-arloko esku-hartzea alde batera utzi gabe.

Irizpen honek hizpide du foru-dekretuaren proiektu bat, zeinaren bidez aldatuko baita 84/1990 Foru Dekretua, apirilaren 5ekoa, Nafarroan industrialdeak eta industria-jarduerak ezartzeko arauak onesten dituen. Araua aldatzeko beharra justifikatuta dago, beharrezkoa baita hura egokitzea indarreko foru-araudiak lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan arautzen duen horretara, eta beharrezkoa baita halaber landa-ingurunea sustatzea, Nafarroan despopulazioaren aurka borrokatzeko.

Foru-dekretuaren proiektua prestatzeko prozedurari dagokionez, nabarmendu behar da prozedura abiarazteko foru-agindua, 2022ko ekainaren 2koa, aldatu egin zela 2025eko otsailaren 18an, departamentuetan izandako aldaketengatik eta parte hartzeko lehen izapideak eragin zuen hausnarketagatik. Kontseiluaren ustez, prozedura denboran luzatu da, modu guztiz justifikatuan, baina hala ere ordena logiko bati jarraitu zaio, eta horri esker egiaztatu daiteke tramitazioan zehar egin diren aldaketen trazabilitatea. Horrek aukera eman dio Kontseiluari justifikazioa egiaztatzeko.

Lurraldearen Antolamendua eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginak osatzen du proiektuaren legezkotasuna aztertzeko parametrotzat hartu behar den arau-esparrua, zeinetan nahitaez bete behar da honako hauetan ezarritakoa: Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legea, Ingurumenean Eragina duten Jarduerak arautzen dituen Foru Legea, 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzkoa, 4/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzkoa, eta, azkenik, ondasun publikoen arloko eta nekazaritza- eta baso-politikaren legedia sektoriala.

Proiektuaren edukari dagokionez, artikulua bakarra du, zeinak hamabost apartatutan beste hainbeste manu aldatzen baititu 84/1990 Foru

Dekretuan, bai eta azken xedapen bat ere. Apartatu horietatik, honako hauek dira azpimarratzekoak:

Lehen apartatuak 6. artikulua aldatzen du, eta modu irekiagoan birdefinitzen du tokiari loturiko jardueren kontzeptua, alde batera uzten du jarduera baimengarrien zerrenda itxia, eta natura-baliabideekiko lotura zabaltzen du. Nekazaritzako elikagaien jarduera berriak sartzen dira, hala nola olio-errotak, upategiak, gaztandegiak eta industria isolatuak. Jarduera arriskutsuen definizio itxia aldatzen da, eta horren ordeztu adibideetan oinarrituriko definizioa ezartzen da, hiri-lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren gaineko arriskuetan oinarriturikoa. Halaber, irekia uzten du azalera handiak behar dituzten industria-jardueren kontzeptua, eta aukera ematen du erabiltzen ez diren eraikinak edo instalazioak berrerrabiltzeko, baldintza jakin batzuetan, despokatze-arriskuan dauden eremuetan.

Manu horrek arauaren helburu nagusiari erantzuten dio: erregulazioa malgutzea eta despokazioaren aurka borrokatzea. Aldaketak hirigintza-eta ingurumen-legediaren esparrua errespetatzen du, baina zalantza sortzen da ea ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar den, ikusirik Klima Aldaketarako Bulegoak egindako ohar bat, arauak klima-aldeketa arintzearen arloan izan dezakeen inpaktuari buruzkoa. Hala ere, bulego horrek ez du zehaztu nolako beharra dagoen ikuspegi horretatik araua aztertzeko, eta horregatik Kontseiluak ezin du bestelako iritzirik eman proiektatutako araudia legezkotasunera egokitzen den edo ez ebatzeari begira.

Hamaikagarren apartatuak 21.2 artikulua aldatzen du, zeinak hizpide baititu barneko aparkalekuak, eta aipamen bat kentzen du, eraikitako 100 metro koadro bakoitzeko gutxienez plaza bat egon behar izateari buruzkoa. Kontseiluaren ustez, Klima Aldaketarako Bulegoak egindako oharren arabera, egokia izan zitekeen manuan jasotzea Klima-aldeketa- eta Energia-trantsizioari buruzko Foru Legearen zenbait xedapen, barneko aparkalekuetan karga-puntuak jartzera behartzen dutenak eta isuririk gabeko ibilgailuek soilik erabiltzeko eremuak gordetzeari buruzkoak. Nolanahi ere, xedapen horiek bete egin beharko dira.

Hamabigarren apartatuak 22. artikulua aldatzen du, zeinak hizpide baititu lorategiak eta arboladiak, hartan ezarritako betebeharrak sinplifikatzen ditu, eta “espezie autoktonoak” landatzeko beharra kentzen du. Ez dirudi aski arrazoi dagoenik horretarako, paisaia babesteko proposaturiko helburuak ikusita, eta ez dirudi bat datorrenik biodibertsitatea babestearekin. Horregatik, komenigarria da betebeharrak hori bere horretan uztea edo, gutxienez, lehentasunez bete beharreko hartzea.

Azkenik, Kontseiluak uste du komenigarria izan daitekeela xedapen iragankor bat sartzea, ziurtasunez ezartzeko zein araubide aplikatu behar zaien jada aurkeztu diren baimen-eskaerei edo orain indarrean den 84/1990 Foru Dekretuaren babesean tramitatzen ari direnei.

Kontseiluak ondorioztatu du azterturiko proiektua bat datorrela garatzen duen arau-esparruarekin.